

Plastiko aurpegiak

Antton Izagirre

Aurtengoan ere, irailaren 8ko Hondarribiko alardean ohiko irudi lotsagarri eta iraingarriak errepikatu dira. Aurten, gure alabenerabereen begietatik ikusi ditugu hango gertakariak. Lehen aldiz Jaizkibel konpainiako neska-mutilak txalotzera joan da. Sentimendu bikoitza, poza eta tristura. Bera bezain gazteak edo gazteagoak diren neskak plastiko beltzen atzean ezkutuan, iseka eta irainak Jaizkibel konpainiakoei, negar malkoak sorrarazi dizkio. Espero gabeko ikuskizuna, ulergaitza.

Emozio kontrajarriak. Poz zirrarak Jaizkibel konpainiaren pasaeran. Negar malkoak begietan txalotu ditu.

Ez dut ulertzen! Zergatik? Nola liteke?

Nik esan niezaiokeen Hondarribikoa ez denak nekez uler zezakeela han ematen den ikusezina. Baina hori nire aldetik ihesbidea litzateke. Neutraltasun faltsua. Maitekiro esan diot gertaera horien atzean dauden errudunak ez direla ikusi dituen bere adineko gaztetxoak.

Ez gaitezen engaina. Haserre esan diot, gertaera horien erantzule nagusienetakoa EAJ dela. Bai, “*Partido Nacionalista Vasco*”. Horko buruzagiak, ia egunero parekidetasunaz eta berdintasunaz mintzatzen diren horiek. Baina parekidetasuna praktikan defendatu behar den eguna iristen denean etxean gelditu edo diskriminatzailea den

alardea bultza eta babesten duten horiek. Bitartean, aurpegia zuritzeko, Emakundeko eta Arartekoko arduradunak alarde parekidea babestera bidaltzen dituztenak.

Esan diot asko aurreratuko genuela, EAJk, legalitatea errespetatuz, alarde parekidea defendatuko balu. Esan diot hori guztia boto batzuk gehiago lortzearren truke egiten dutela.

«Madarikatuak!», pentsatu dut nire baitarako.

Uste dut ondo jabetu dela, ongi ulertu didala. Agian datorren urtean egoera errepikatzen baldin bada, ez du malkorik isuriko. Agian, «madarikatuak!» pentsatuko du. •

Ohitzearen beldur

**Miren Azkarate
Badiola**

Eskutik helduta doaz beti udaren amaiera eta kurtso berriaren hasiera. Aurtengoan, gainera, hautes-kundeak gehitu behar zaizkio data honi. Lan instituzionala gutxietsi gabe eta alderdi politikoen lan beharrezkoa azpimarratuz, gaurkoan hausnarketa puntua beste leku batean jartzera noa. Eta horretarako pare bat titular erabiliko ditut. Jakinaz, asko izan direla udan zehar larritu nauten titularrak. Zoritxarrez!

Uda niretzako titular honekin hasi zen: “Gutxienez 4.009 tortura kasu identifikatu dituzte ‘Tortura 1960-2013’ txostenean”. Urtero Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen dituen Udako Ikastaroetako batek utzitako goiburua. Bertan parte hartzeko aukera izan nuen, entzule bezala hiru egunetan eta azkenekoan tortura testigantza eman zuten emakumeetako bat izan nin-

tzan. Luze eta zabal idatzi nezake honi buruz, baina albisteak izan zuen oihartzuna aztertu nahi nuke. Ikastaroaren hurrengo egunean zenbait euskal hedabidek (gutxi batzuek) bere tartea eskaini zioten. Baina hortxe gelditu zen dena. Hurrengo egunean berriro ere isiltasuna, berriro ere hutsaren hurrengo garen sentsazioa.

Uda amaierako titularra hauxe: “*El TC cierra el paso a Otegi evitando incluso tener que argumentarlo*”. Egun askotako ibilbidearen ondoren, azkenean ate judizial guztiak itxi zizkieten Arnaldo Otegi Mondragoni, kasu honetan, lehendakaritzarako hautagai gisa aurkezteko. Eta gainera, arrazoitu gabe, zertarako!? Honek ere izan zuen oihartzuna hedabideetan. Baina beste albiste bat bezala pasa da.

Iruditzen zait euskal gizartea ohitu egin dela horrelako titularrak irakurtzera eta

entzutera. Bi titularrok Euskal Herrian gertatu ez balira, edo patxadaz pentsatzen geratuko bagina momentu batez, eskandalua sortu beharko luketen bi gertaera direla iruditzen zait. Milaka tortura kasu eta lehendakarigai baten betoa. Ez ahaztu, demokrazia eta zuzenbide estatua zutabe nagusizat dituen herrialde batez ari garela.

Beldurtu egiten nau albiste hauekiko ohitze eta asimilazioak. Gehiegizko eta momentuko informazioa bizi dugun garaiotan benetan lurrikara sozial eta politikoa sortu behar luketen titularrak direla pentsatzen dut. Pentsatu soilik, ez baitakit burutik erraietarako muga igarotzera iristen den ideia bera. Anestesia emozionala ote?

Normaltasun honek hotzikara eragiten dit. Zein izango da biharko titularra? •